BALDINTZA TEKNIKOAK ZEHATZEN AGIRIA; ZERBITZUAK PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEA

2017ID170001
2017-18 eta 2018-2019 IKASTURTEETAN UDALEKO LUDOTEKAREN KUDEAKETA.

1. SARRERA

Lezoko Kultura sailaren alor bat da herriko haurrei eta nerabeei haurtzaroan eta nerabezaroan garatzeko, gozatzeko eta euskaraz aisialdian aritzeko aukera egonkorra eta etengabea ematea.

Zeharkako lerroak:

Zerbitzuan garatutako jarduera guztietan funtsezkotzat hartzen ditugu 3 zehar lerro hauek:
1. Jarduerak euskaraz garatzea eta erabiltzaileen erabilera sustatzea euskararen aldeko jarrerak bultzatuz.
2. Gizon eta emakumeen arteko berdintasunena oinarritzea.
3. Inklusioa eta integrazioa bultzatu. Haurren arteko aniztasuna kontuan hartuta zerbitzuak, arreta berezia eskainiko die premia berezia dituzten pertsonei (gizartean zailtasunak dituztenak, urritasun fisikoak, etorkinak…).

2. XEDEA

Kontratu honen xedea Ludoteka zerbitzu-eskaintza arautzea da 2016-17 eta 2017-18 ikasturteko epealdietan. Ikasturtearen jarduera urritik maiatzera luzatuko da .

Horiezaz gain, udalak urtean zehar Gezala Auditoriumean antolatzen dituen kultur emanaldietan begirale lanak bideratzea emanaldi-egunetan eta bezeroen arreta zerbitzuaz arduratzea [bataz beste gehienez, urtean 20 emanaldi]

3. IRAUPENA

Kontratua bi urtekoa da. Berariaz eta bi alderdiak ados baldin badaude, kontratua urtero luzatu ahal izango da. Hala eta gustiz ere, kontratuak, luzapenak barne, ezin izangou lau urte baino gehiago iraun

Luzagarria eta gehinenez ere banan bana beste bi luzagarria.

4. ESLEIPENDUNAK EGIN BEHARREKOAK

Jardueretako ekintza den denak euskaraz burutuko dira. Aldi berean, langileen arteko komunikazio eta lan hizkuntza ere euskara izango da.

4.1. Ludoteka kudeatu, dinamizatu eta kontrolerako esleipendunaren betebeharrak[1]

- Programa aurkeztu.

[1] **Ikus pleguaren eranskinean:**
- Ludotekako zerbitzuaren erabiltzaileak eta zerbitzuaren lan egutegia.

- Kurtso bakoitzean, abendu bukaeran, talde, jarduera eta abarren lehen balantzea biltzen duen memoria aurkeztu. Kontratazioaren helburu eta zerbitzua egokitasunez bete.
- Euskara-Kultura departamentuko arduradunak emandako lan ardatzei arreta eman.
- Ikasturteko zabalkunde kanpainako-lanen ardura.
- Hilabetez hilabete umeen asistentziaren jarraipen zehatza egingo da eta datu hauek udalean entregatu beharreko memorian uztartuko dira. Aldiz, izandako baja eta alta berriei dagokien informazio-txostena hilabetero aurkeztu beharko da udalean.
- Ikasturte amaieran, jardueraren memoria egitea, non besteak bestea agertuko dute: izandako garapena, funtzionamendua, datu estatistikoak, jarraipen fitxak eta ebaluazioa. Memoria honetan, garrantzi berezia hartuko du —eta aparteko atalean islatuko da— hobekuntza atala. Hau da, ikasturtean suertaturiko arazo eta ustekabeen zerrenda eta hemen, gurasoengandik jasotako iradokizunen bilduma.

4.2.Kultura sailak Gezala Auditoriumean antolatutako kultur jardueren kudeaketa.

Saileko kultura programaren barruan haurren aisialdi emanaldien kudeaketa osoa eta, orohar, saileko urteko programazioa. Hau da, emanaldiaren egunean Gezala Auditoriumaren irekitzea eta itxiera lanak eta, sarreren salmenta eta kontrola emanldiko [20 bat aldiz urtean zehar].

5. EGITASMOETARAKO BETE BEHARREKOAK

- Zerbitzua emateko beharrezkoa den pertsonala eskaintzea.
- Lan, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzea. Udalak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.
- Aktibitatearen baitan haurrek jasan lezaketen edozein motatako istripu edo gertakari kalte horri aurre egin ahal izateko, esleipendunak aktibitate programan bere hedadura osoan estaliko duen Erantzukizun Zibileko Asegurua itundu beharko du —gutxienez 300.000€ko estaldurarekin— entitate aseguratzaileren batekin, beti ere indarreango legeriak asegurugintza eta erantzukizun zibilaren esparruan xedatuari jarraiki. Aipatu erantzukizun zibileko aseguruak, haurren gaineko kalteez gain, aktibitatea antolatzearen ondorioz gerta litekeen beste edonolako kalte, narriadura eta galera kalte ordainez estaltzeko adinakoa izan beharko du.
- Plegu honetan xedatutako edozein betebehar burutzean sor litezkeen eragozpen edo atzerapenen aurrean esleipendunak aldaketarik egin beharko balu, ezinbestez udal Euskara-Kultura zerbitzuari jakinarazi beharko lioke aurrez; proposatutako aldaketa Tokiko Gobernu Batzarrak ontzat eman dezan.
- Esleipendunak zerbitzua eskainitako baldintzetan eman beharko du eta ezingo du hirugarrenik kontratatu. Udalak horrela eskatuta, esleipendunak bere langileen lan-kontratuak, nominak, afiliazio-dokumentuak eta gizarte-segurantzako kotizazioa entregatu behar ditu.

- Zerbitzuaren prestazio normalean eragin izan dezaken lan greba edo gatazkarik egonez gero, esleipendunak aldez aurretik eman behar dio horren berri Udalari, honek bere aldetik bidezko neurriak har ditzan.
- Ematen duen zerbitzu eta prestaketaren kalitatearen erantzule izango da, baita zerbitzu desegokiaren edota beste hutsegiteren bat dela medio, Udalari edota hirugarren bati eragin diezaioketen ondorioetan ere.
- Esleipendunak Udalaren esku jarriko du aipatutako betebeharrak egiaztatzeko beharrezko den dokumentazioa. Esleipendunak onartutako obligazioak beteko ez balitu Udalak badu bete ditzan eskatzeko ahalmena, nola kontratua deuseztatutzat deklaratzekoa.

Era berean, kontratua prestatzeak, esleitzeak eta formalizatzeak, nola iragarkiak argitaratzeak eta, kasua balitz, kontratua eskritura publikoan jasotzeak, horrek guztiak sortzen dituen gastu eta tasa guztien ordainketa egiteko obligazioa du kontratista/esleipendunak, beronen kargurakoak direlarik, halaber, zerga guztiak, BEZ barne.

6. ZERBITZUAREN HELBURUAK

6.1. Ludoteka:

Lezoko Udaleko Euskara-Kultura Sailaren menpe dagoen 3-12 urte bitarteko haurrei zuzendutako zerbitzua da. Parte hartzen duten haurren eskura joko eta jostailuez hornituriko espazioa eskainiko da. Heziketa proiektu baten laguntzaz eta denbora libreko ekintza ludikoen bitartez haur horien garapen sozial eta afektiboa bermatzea du helburu.

a) Helburu zehatzak:

- Jolasa edo ekintza ludikoa denbora librerako baliabide sortzaile bezala erabiltzea bultzatu.
- Haurraren garapen sortzailea eta afektiboa sustatuko duen jarduera ludikoak sortu eta bideratu.
- Protagonismoa haurrari berari ematea, zertan eta nola jolastu nahi duen berak erabaki dezan, heldu hezitzailearen erantzukizuna sustatzearena izango delarik.
- Haurrek autonomia lantzea, izaera kritiko eta iniziatiba gaitasuna daukaten pertsonen garapen integrala errazten duen baliabideez hornituriko ekipamendua sortu.
- Ondorengo ardatzekin zerikusia duten ohiturak eta portaerak sustatuz: errespetua, elkarbizitza, lankidetza, erantzukizuna, autonomia, berdintasuna, solidaritatea, tolerantzia, hezkuntza eta aniztasunarekiko baloreak indartu.
- Osasunerako eta ingurunearekiko hezi, egunerokotasunetik hasita higiene ohiturak sustatuz.
- Haurrengan ekintza berritzaileak sustatzen dituzten egoera eta tresnak ahalbidetu.
- Ezintasun fisiko, psikiko edo sentsorialak dituzten haurrak ludotekan integratu.
- Elkar harremanetarako espazioak eskaini talde naturaletan lan eginaz, haurren integrazioa laguntzen duten aspektuak bultzatuz.
- Aisialdian euskararen erabilera sustatu eta bermatu.
- Neska eta mutilen arteko aukera berdintasuna bermatu zerbitzuan, baita zerbitzutik bideraturiko ekimen guztietan ere.
- Haur eta gurasoen inplikazioa sustatu.

b) Funtzionamenduari dagokionez ondorengoa bete beharko da

Programazioa.

- Hezitzaileak programazioa hilabeterako egingo du eta gauzatutako programazioa hilero bidaliko dio Udaleko Gazteria Zerbitzuari programatu den hila baino 15 egun beranduago.
- Horrez gain hile horretako asistentziak ere bidaliko ditu.
- Egun puntualetan ekintza bereziak egingo dira. Hala nola: inauteriak, martxoaren 8a, Mendeskoteak, euskararen eguna eta Gabonetan.
- Udaberrian, eguraldiak laguntzen duenetan, astean behin ludotekaren jarduerak kalera aterako dira.
- Guraso eta haurrek parte hartzeko bideak bermatuko dira.

Koordinazioa.

- Hezitzailea, gutxienez bi hilean behin Kultura Zerbitzuarekin elkartuko da, ludotekaren jarraipena egiteko eta unean-uneko erabakiak hartzeko.

Ebaluazioa

- Ludotekako haurren gurasoekin, urtero, gutxienez bi bilera egingo dira. Lehenengoa urrian proposamenak jasotzeko (ekintzak, irteerak…) eta bigarrena kurtso amaieran, ikasturteko balorazioa egiteko.

Materiala

- Zerbitzua martxan jartzeko beharrezko materialaren zerrenda adostuko da udala eta adjudikazio hartzailearen artean. Material hori udalak erosiko du eta udalaren jabetzakoa izango da.
- Inbentariagarria ez den materialaren kostua adjudikazio hartzailearen gain joango da.

6.2. Gezala Auditoriumeko kultur jardueren kudeaketa.

- Emanaldiko sarreren kontrola eramatea.
- Aretoa era onean gelditzen dela ziurtatzea.
- Balizko intzidentzien berri kultura sailera ematea.

7. BALDINTZA EKONOMIKOAK

Diru-kopurua guztira —gehienez ere—: **19.000,00 euro/urtean BEZ-arik gabe** eta ondorengo moduan banatuko da:

7.1. Ludoteka.

- **18.000,00€** gehienez ere, ikasturteko (8 hilabete).
- Ludoteka materialaz hornitzeko egin beharreko erosketa, esleipendunak udalari egingo dio proposamena eta onartuko balitz udalak egikarituko du.

7.2.Kultur jardueren kontrola.

- **1.000,00€** gehienez ere, urteko eta ekitaldiz ekitaldi fakturatzeko, ekimeneko prezioa azaldu behar da.

Zehaztutako diru kopuruak ordaintzea 8 hilabetetan banatuta. Horretarako, faktura aurkeztu beharko du eta fakturarekin batera, langileen hileko soldata ordaindu izanaren agiria eta baita aurreko hileko TC1 eta TC2-a, baita horiei dagokiona ordaindu izanaren agiria. Autonomoa balitz autonomo bezala aurreko hileko kuota gizarte segurantzari ordaindu izanaren agiria.

Prezio horretan kontratatzen diren zerbitzuak aurrera eramateko sortzen diren gastu guztiak barne direla ulertzen da (kontratazioak, Gizarte Segurantzako kotizazioak, administrazio kostuak, inbentariagarria ez den materiala...).

Lizitatzaileek diru-kopuru horiek hobetu ditzakete.

7.3.Kontratuaren ikasturteko prezioa hilero ordainduko da, administrazioari kobrantza-agiri egokia aurkeztu eta berak onartu ondoren ordainduko da. Horietako azkena, kurtso amaieran beti ere memoria aurkeztu ondoren.

8. ZUZENDARITZA ETA IKUSKAPENA

Ludotekaren zuzendaritza eta ikuskapena Kultura sailak burutuko du. Hori horrela delarik, esleipendunak behar beste erraztasun emango dio udal Kultura zerbitzuari aipatu zuzendaritza eta ikuskapena egin ahal izan ditzan.

9. BALDINTZA TEKNIKOAK

9.1.PERTSONALA

Ludotekan: Haurren matrikulazioak 20 lagunen kopurua gainditzen badu, bi hezitzaile hiru ordu t'erdiko lanaldian.

Hezitzaileen profila honako hau izango da:

- Hezitzaileek xedearen antzeko lanetako eskarmentua izatea.
- Hezitzaileen titulazioa gutxienez Diplomatura edo baliokidea izango da. Hobetsiko da Gizarte Hezkuntza, Gizarte Lan edo irakasle diplomatura edukitzea.
- Gutxienez Aisialdiko Begirale titulazioa izan beharko du.

9.2.HIZKUNTZA

EAEko hizkuntza ofizialei dagokionean ondorengo betebeharrak zehazten dira:

a) <u>Hizkuntza Gaitasuna</u>

Hizkuntza gaitasunei dagokienez, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik, Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila egiaztatu beharko dute, bai Lezoko Udalarekin harremanak izango dituzten langileak, baita zerbitzua ematean lanean arituko direnek ere.

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna.

Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko honako bi bideak erabili ahal izango dira:

1. Zerbitzua eman behar du(t)en pertsonak/ek eskatutako hizkuntza gaitasuna dauka(te)la ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo,

2. Administrazioak erabakitako proba egitea (proba horretan lortutako agiriak ez du inolako baliorik izango esleipen honetatik kanpo).

b) Hizkuntza Paisaia:

Lan eremuetan erabili beharreko errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazioak elebitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, betiere administrazioarekin aldez aurretik adostuta.

c) Erabilera herritarrekin:

Zerbitzuaren erabiltzaileari harrera eta erantzuna administrazioari eskatzen zaizkion hizkuntza baldintza berdinetan egingo dira.

Administrazioak onartutako hizkuntza-irizpideei jarraituz, herritarrekin lehen hitza euskaraz egingo da. Modu berean, era guztietako jakinarazpenak eta komunikazioak (inprimakiak, oharrak, abisuak, ordutegiak, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak…) euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, euskarazkoari lehentasuna emanez. Herritarrak edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea.

d) Erabilera Administrazioarekin:

Enpresak administrazioarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak (kontratu, faktura, txosten, bilera, kontsulta...) administrazioaren lan hizkuntzaren araberakoak izango dira, hau da euskaraz.

Eranskin 1

Udal Ludoteka zerbitzuaren erabiltzaileak:

Erabiltzaileen adinari dagokionean, jarduera 3 eta 12 urteko haurrentzat da. Gehienez ere 50 haur eguneko onartuko dira. Hau da, aretoen ezaugarriak direla tarte, 50 laguneko matrikulazioa gaindituko balitz, esleipedunari dagokio matrikulazioa adin eta helburuen arabera maiilakatzea, salkatzea eta haurrak egunez eguneko programatan banatzea eta uztartzea.

Ludotekaren kudeaketa: 20 lagunetik beherako taldea bada, begirale bat izango du. Matrikulazioak gora egingo balu —20tik 50era— bi begirale izango lituzke.

Udal Ludoteka zerbitzuaren lan-egutegia:

Zabalik: 2017-18 ikasturtean: urritik maiatzera (biak barne).

2018-19 ikasturtean: urritik maiatzera (biak barne).

Ikasturtea urriaren lehenengo lan egunean irekiko da. Itxi, berriz, maiatzeko azken ostiralean. Begiraleek, ireki aurreko astean prestaketa lanak egingo dute eta amaieran, Ludotekaren txukunketa eta balantze-txostena.

Irekiera ordutegia: astelehenetik ostiralera arratsaldeko 16:30etik 19:30era.

Lan-egutegiaren zehaztapen guztiak ere Kultura sailarekin adostuko dira ikasturtearen hasieran eskola egutegiak kontuan izanda.

Gabonetako eta Aste Santuko oporretan, jarduera bereziak antolatuko dira —haur jolas irekiak, zinea…— egitaraua eta ordutegia Kultura sailarekin adostuz.

INBENTARIOA

Esleipendunak, hasierako inbentarioa egingo du eta hau, kontratua irauten duen bitartean eguneratu eduki beharko du; zainketaz arduratuko da eta udalari jakinaraziko dio edozein intzidentzia gertatuz gero.

Hasieran dauden ondare guztiak eta instalakuntzari gehitu dakizkiokeenak, Lezoko udalaren esku geratuko dira kontratua amaitzerakoan. Beti ere egoera onean eta funtzionatzeko moduan.

BERMEAK

Esleipenaren %5.

KAUDIMENA

Pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren gutxieneko kaudimen finantziero, tekniko eta profesionala frogatzen badute. Hau da, haur eta gazteen egitasmoetako lanetan gutxienez bi urtebetez aritu izana bai enpresa bai enpresak bertaratuko diren hezitzaileak ere.

Lezoko Unibertsitateko Udala

Esleitzeko Irizpideak

1.- Prezioa: ……..…… 51 puntu
2.- Haurrentzako zerbitzua kudeatzeko proiektua: ……..….. 44 puntu
3.- Hobekuntzak …..... 5 puntu

1.- Eskainitako preziorik hoberena: ……..…… ……..... **51 puntu**

Irizpide hau aztertu eta puntuak ematerako orduan, eskainitako zenbatekoak aintzat hartuko dira, ezarritako BEZa kontuan izan gabe. Gehienezko puntuazioa emango zaio eskaintza ekonomiko merkeenari, eta zero puntu, lizitazio prezioari. Gainerako eskaintzak puntuatzeko, eskaintza merkeenaren kozienteari dagokion emaitza eta lizitatzailearen eskaintza biderkatuko dira. Lizitatzailearen eskaintza baloratzeko, irizpideari eman dakizkiokeen puntu guztiak izango dira kontuan. Hau da,

Ob x Z
Ol

- Ob: eskaintza ekonomikorik merkeena da.
- Ol: baloratu beharreko lizitatzailearen eskaintza.
- Z: gehienez ere eman daitekeen puntu kopurua da.

Haisera batean, aurkeztu diren baliozko eskaintza guztiekin alderatuta, neurri gabeko edo normaletik kanpoko eskaintzen ondorioz bete ezin diren proposamenak direla antzematen uzten duten mugak Sektore Publikoko Legeari Buruzko Araudi Orokorraren 85. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoak izango dira.

2.- Haurrentzako zerbitzua kudeatzeko proiektua: ……..…… **44 puntu**

Proiektuan ondorengoak baloratuko dira: ..... 14 puntu

a) Oinarri teorikoa eta proiektuaren helburuak 7 puntu

- Proiektuaren, Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistemarekiko egokitzapena: 3 puntu
- Marko teorikoa, helburuak eta proposatzen diren jarduerak era egokian erlazionatzea: 4 puntu

b) Proiektua udalerriaren errealitatera egokitzea 7 puntu

- Lezoko haurren errealitatearen ezagutza: 4 puntu
- Sustapenaren ikuspuntutik interesgarriak diren herriko baliabideak, elkarteak e. a. ezagutzea eta haiekin elkarlana egiteko proposamena egitea: 3 puntu

c) Lan metodologia**: …..** 30 puntu

- Zuzeneko arreta emateko proposamena 17 puntu
  - Erabiltzaileen aniztasuna lortzeko proposamena: 1 puntu
  - Jarduera arloak garatzeko proposamena: 12 puntu
  - Zehar lerroak garatzeko planteamendua: 4 puntu

d) Zeharkako arreta edo barne lana antolatzeko proposamena 13 puntu

- Zerbitzua planifikatzeko, ebaluatzeko planteamendu egokia: 6 puntu
  - Koordinazio sistemaren planteamendu egokia 4 puntu
  - Kanpo komunikazioa, zerbitzuaren hedapen planteamendua eta jakintza kudeatzeko planteamendu egokia: 3 puntu.

3.- Hobekuntzak ……..... **5 puntu**